

## Uliako putzu-sarearen aberastasuna ezagutzeko irteera gidatua

Datorren otsailaren 2an Hezeguneen Munduko Eguna ospatuko da, hainbat animalia- eta landare-espezierentzat beharrezkoak diren ekosistema horiek ezagutarazteko eta balioesteko eguna. Uliá mendian putzuen eta hezegune txikien sare garrantzitsu bat sortzen ari da, Donostiako Udalaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen lankidetzarekin, eta otsailaren 3an ingurune horretara bisita egingo da, betetzen duten funtzioa eta garrantzia ezagutzeko. Izen-emateak irekita daude.

Uliá Interpretazio Zentroko arduradun Oihana Orkolagak azaldu duenez, *"Aranzadin adituak dira putzu eta hezeguneen ikerketan, eta esku artean dute Mikroklima izeneko proiektu parte-hartzailea; aurten ere berarekin parte hartzeko aukera paregabea izango dugu"*.

Mikroklimak edozein kontserbazio-proiektuk barne hartu behar dituen jarduerak biltzen ditu: ikerketa, kudeaketa eta dibulgazioa. Uliá Interpretazio Zentroan azalpen batzuk jaso ondoren, putzu-sareko bi hezegunetan ikerketa- eta kudeaketa-ekintzak egingo dira: *"batetik, Uliako mikrohezeguneetako biztanle txikiak ezagutarazteko eta balioesteko, eta, bestetik, urmael horien erakargarritasun biologikoa areagotzeko kudeaketa-ekintza errazak egingo dira"*, gaineratu du Orkolagak.

Irteera puntua Uliá Interpretazio Zentroan izango da, 10:00etan.

Izen-emateak irekita [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus) webgunean.

## Salida guiada para conocer la riqueza de la red de charcas de Uliá

Este próximo 2 de febrero se celebra el Día Mundial de los Humedales, una fecha para dar a conocer y poner en valor estos ecosistemas necesarios para varias especies animales y vegetales. En el monte Uliá se viene creando una importante red de charcas y pequeños humedales, en colaboración entre el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián y la Sociedad de Ciencias Aranzadi y el 3 de febrero se realizará una visita a este entorno para conocer la función que desempeñan y su importancia. Inscripciones abiertas.

Oihana Orkolaga, responsable del Centro de Interpretación de Uliá, ha explicado que *"en Aranzadi son expertos en investigación de charcas y humedales y tienen entre manos el proyecto participativo llamado Mikroklima; un año más tendremos la gran oportunidad de participar con ellos"*.

Mikroklima contiene las actividades que cualquier proyecto de conservación debe incluir: investigación, gestión y divulgación. Tras recibir algunas explicaciones en el Centro de Interpretación de Uliá, se desarrollarán acciones de investigación y gestión en dos humedales de la red de charcas: *"por un lado para dar a conocer y poner en valor a los pequeños habitantes de los microhumedales de Uliá, y por otro lado se llevarán a cabo sencillas acciones de gestión para aumentar el atractivo biológico de estas charcas"*, ha añadido Orkolaga.

La salida tendrá lugar a las 10:00 h. desde el Centro de Interpretación de Uliá.

Inscripciones abiertas en [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus).